

XEDEA

EUSKARA ARLOKO ZINEGOTZIAREN PROPOSAMENA, 2009 URTEAN EUSKARA PLANA GARATU ETA INPLEMENTATZEN ARI DIREN GERNIKA-LUMOKO ENPRESEI DIRU LAGUNTZAK EMATEKO.

ARGUDIOAK

Kontuan hartuta Gernika-Lumoko Udalak 2003ko apirilaren 30ean onartutako Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoan aintzat hartu ziren ekintzak enpresa munduari dagokionean eta, horren ildotik, 2009-2012 eperako Plan Estrategikoak lan-mundua euskalduntzeari eutsiko diola.

Kontuan hartuta 2009 urteko Kudeaketa Planean hurrengoak lantzen ari garela:

Esparrua: 5. Lan mundua

Helburua: 5.1. Lan munduan euskararen erabilera handitu.

5.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

Ekintza: 5.1.1.1. Herrian eragin handia duten enpresekin banan banako elkarrizketak egin, eta azaldu euskararen erabilera plana gauzatzeko jarraitu beharreko pausuak zein diren, Nola parte hartu, laguntza teknikorako zein aukera dauden...

5.1.3. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

Ekintza: 5.1.3.1. Saritu euskararen erabilera areagotzeko planak abian jartzen dituzten enpresak: diru-laguntzak eman jarraipenerako, aipamen berezia herriko web orrian...

Ekintza: 5.1.3.3. "Geure berbie euskeraz" hitzarmengintza kanpaina garatu enpresa arloan

Iraungo hamabost urtez Merkataritza arloan euskararen normalizazioa lantzeari ekin diogu eta enpresa mundua 2001etik hona. Orain dela bi urte berriztapen bat erantsi genion enpresa esparruko kanpainari: nahi duten enpresekin elkarlanean bertako Euskara Planak gauzatzea. Horretarako, Euskara Arloak dirulaguntza partidan kopuru bat aurreikusi du arlo horretarako.

Hori horrela, 2009an Plana garatzeko eta inplementatzeko konpromisoa hartu dute hurrengo enpresek, dituzten aurrekontuak. beste erakundeetako diru laguntzak eta defizitak zehaztuz:

ENPRESAK	Aurrekontu osoa	(Eusko Jaurlitza+ Bizk Foru Aldundia) Diru Lag	EJ+BFA Diru lag. %	Enpresaren derrigorrezko ekarpena (%40)	Defizita
GERNIKA GARBIKETAK	18296	5794,92	31,67	7318,4	5182,68
BUSTURIALEKO IRRATI TELEBISTA	17740	6728,01	37,92	7096	3915,99
EKIN / BIZKARGI AUTOAK	36979,80	16097,45	43,53	14791,92	6090,43
BENGOZARRA ERAIKUNTZA METALIKOAK	39612,4	18269,68	46,12	15844,96	5497,76

Kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak egiten dituzten diru laguntza deialdietan eskatzaileei jarritako baldintzen arabera euren bizkar aurrekontuaren %40a hartu behar dutela. Beraz, Euskara Arloak eskatzaileei defizita murrizteko diru laguntzak eskaintzen dizkienez urtero, aurrekontuaren %50era iristeko falta duten diru laguntza esleitzeko proposamena egin nahi da:

PROPOSAMENAK	Aurrekontuaren %50era iristeko falta duten diru laguntza
GERNIKA GARBIKETAK	3353
BUSTURIALEKO IRRATI TELEBISTA	2141
EKIN / BIZKARGI AUTOAK	2392
BENGOZARRA ERAIKUNTZA METALIKOAK	1536
GUZTIRA	9422

PROPOSAMENA

Aipatu guztia kontuan hartuta, gogoko dut Tokiko Gobernu Batzarrari hauxe proposatzea:

1).- Enpresa esparruan euskara bultzatzeko hitzarmengintza kanpaina burutzearekin batera Gernika-Lumoko Udalak hartzen duen konpromisoetako bat enpresetako Euskara Planak egin eta garatzeko diru laguntzak ematea izanik eta, espedientean jasotako agirien erabera, eskatzaileek helburu horrekin Eusko

Jaurlearitazatik eta Bizkaiko Foru Aldunditik jasotako diru laguntzak kontuan hartuta, aurrekontuaren %50era iristeko falta duten diru laguntza hurrengo enpresei esleitzea (GUZTIRA : 9.422 euro):

ENPRESAK	DIRU LAGUNTZA
GERNIKA GARBIKETAK	3.353
BUSTURIALEKO IRRATI TELEBISTA	2.141
EKIN / BIZKARGI AUTOAK	2.392
BENGOZARRA ERAIKUNTZA METALIKOAK	1.536
Guztira	9.422

2).- Indarreango araudiaren arabera, diru laguntza jasoko duen erakundeak konpromisoa hartzen du lagundutako ekintzaren balantzea 2010 urteko urtarrilaren 31rako aurkezteko, emandako diru laguntzaren erabilera ziur dezaten zurigarriekin batera. Honetan adierazitakoa ez betetzeagatik, jasotako diru laguntzak itzuli beharra izan daiteke eta doloa, errua edota neglijentzia bitarteko balitz administraziobideko hauspena litzateke.

Aurrekontuko partida: 5-4514-48100

Gernika-Lumon, 2009ko urriaren 19an.

EUSKARA ARLOKO ZINEGOTZIA,

Idoia Fernández Antia